

## Xedapen Orokorrak

**INDUSTRIA, MERKATARITZA  
ETA TURISMO SAILA**

**7112**

208/2008 DEKRETUA, abenduaren 9ko, Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua arautzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industriako Legean zehazten denez, industria-segurtasuna xedapen-sistema bat da, eta bi helburu ditu: arriskuak prebenitu eta mugatzea, batetik, eta, bestetik, istripuen aurkako babes, istripu horiek pertsona, ondasun edo ingurumenari kalte egiteko modukoak badira eta industria-jarduerak sortuak badira, edo instalazioen edo ekipoen erabilera, funtzionamenduak eta mantentzeak sortuak, edo industriako produktuak ekoiztearen, erabiltzearen edo kontsumitzearen, biltegiratzearren edo zakarretara botatzearren ondorioz sortuak.

Eskumenen banaketari dagokionez, industria-segurtasuna industria-arloaren barruko azpigaia da, eta hori arautzeko ahalmena Estatuak eta autonomia erkidegoek dute aldi berean. Estatuko legegileak egoera hori antolatu nahi badu, elkargune eta irizpideak ezarri beharko ditu, Konstituzioan eta Estatutuan zehaztutakoari meneginez. Nolanahi ere, Estatuko araudia eta kasuan kasuko autonomia-erkidegoaren araudi osagarria betearaztea autonomia-erkidegoen eskumen esklusiboa da.

Gauzak horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriako Legeak bere III. kapituluaren 15. artikuluan Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua sortzen du. Industria-segurtasunaren arloko gizarte-interes eta jarduerak ordezkatzentzituzten sektoreek aholku eman eta parte hartzeko organoa izango da Kontseilua eta industria-arloan eskumena duen sailari atxikita egongo da. Aipatutako lege horretan ezarritakoaren arabera, organo horrek parte hartuko du Autonomia Erkidego honen industria-segurtasunerako politika taxutzen, aholku ematen eta jarraipena egiten, arlo horretan jarduteko planak bultzatzetza eta koordinatzetza. Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluaren osaera eta jarduera-arauak garapen-erregelamendu bidez ezarriko dira.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak dekretu hau prestatzean aintzat hartu ditu Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 19.tik 22.ra bitarteko artikuluetan ezarritakoa, bai eta nahitaezko gainerako txostenetan ezarritakoa ere.

Ondorioz, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorri, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko abenduaren 9an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

## Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
COMERCIO Y TURISMO**

**7112**

DECRETO 208/2008, de 9 de diciembre, sobre el Consejo Vasco de Seguridad Industrial.

La seguridad industrial, como así se define en la Ley de Industria de la Comunidad Autónoma de Euskadi, es el sistema de disposiciones que tiene por objeto la prevención y limitación de riesgos, así como la protección contra accidentes capaces de producir daños a las personas, a los bienes o al medio ambiente derivados de la actividad industrial o de la utilización, funcionamiento y mantenimiento de las instalaciones o equipos y de la producción, uso o consumo, almacenamiento o desecho de productos industriales.

Desde el punto de vista competencial, la seguridad industrial es una submateria de la materia industria, en la que se produce una concurrencia de potestades normativas, estatal y autonómica, que puede ordenar el legislador estatal con los criterios y puntos de conexión que sea menester fijar, y que resulten constitucional y estatutariamente correctos. Por su parte, la ejecución de esta normativa estatal y de la complementaria que pueda dictar la Comunidad Autónoma corresponde en exclusiva a ésta.

En este orden de cosas, la Ley de Industria de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el artículo 15, dentro del Capítulo III, dedicado a la seguridad industrial, crea el Consejo Vasco de Seguridad Industrial como órgano consultivo y de participación de los sectores representativos de intereses sociales y actividades relacionadas con la seguridad industrial y lo adscribe al departamento competente en materia de industria. Así mismo le impone las funciones de participar en la elaboración, consulta y seguimiento de la política de seguridad industrial de esta Comunidad Autónoma, impulsando y coordinando planes de actuación en la materia. En cuanto a su composición y normas de funcionamiento, lo remite a la norma de desarrollo reglamentario.

El Departamento de Industria, Comercio y Turismo ha elaborado el presente Decreto teniendo en cuenta lo dispuesto en los artículos 19 a 22 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, así como el resto de informes preceptivos correspondientes.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 9 de diciembre de 2008,

## XEDATU DUT:

I. KAPITULUA  
IZAERA ETA EGINKIZUNAK

**1. artikulua.**— Dekretuaren helburua.

Dekretu honen helburua Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua arautzea da, hau da Kontseilu horren organoak, osaera, eginkizunak, izendapen-era eta funtzionamendu-araubidea.

**2. artikulua.**— Izaera.

Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua Euskal Autonomia Erkidegoko Industriako azaroaren 12ko 8/2004 Legeko 15. artikuluaren bidez sortu zen eta industria-segurtasunaren arloko gizarte-interes eta jarduerak ordezkatzten dituzten sektoreek aholku eman eta parte hartzeko organoa izango da.

**3. artikulua.**— Atxikipen organikoa.

Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua industria-arloko eskumena duen sailari atxikita egongo da, baina ez da sail horren egitura organikoan sartuko.

**4. artikulua.**— Eginkizunak.

Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluak egin-kizun hauek izango diru:

a) Lurralde-eremu Euskal Autonomia Erkidegoa duten industria-segurtasuneko araudi-proiektuei buruzko nahitaezko txostenak egitea.

b) Industria-segurtasunaren arloko jarduera-planen gainean txostenak egitea.

c) Industria-segurtasunaren arloko erakunde lagun-tzaileen jarduerak koordinatzea.

d) Industria-segurtasunaren arloan azterlanak eta txostenak egitea sustatzea.

e) Industria-segurtasunaren arloko politika lantzeko, eta horri buruzko kontsultak eta jarraipena egiteko aholkularitza ematea.

II. KAPITULUA  
ANTOLAMENDUA

**5. artikulua.**— Antolamendua.

1.— Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluak bilkuraren jardungo du.

2.— Bilkurako lehendakari industria-segurtasunaren arloko eskumena duen sailburuordeak jardungo du eta horrek idazkaria izendatuko du bere sailburuordetzaari atxikitako funtzionarioen artean. Lehendakariordea, berriz, industria-segurtasuneko zuzendaria izango da.

**6. artikulua.**— Bilkuraren osaera.

1.— Lehendakariak, lehendakarioordeak, idazkariak eta 19 kidek osatuko dute bilkura.

2.— Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluko bilkurako kideak honako hauek izango dira:

## DISPONGO:

CAPÍTULO I  
NATURALEZA Y FUNCIONES

**Artículo 1.**— Objeto del Decreto.

Es objeto del presente Decreto regular el Consejo Vasco de Seguridad Industrial, en concreto, sus órganos, composición, funciones, sistema de designación y régimen de funcionamiento.

**Artículo 2.**— Naturaleza.

El Consejo de Seguridad Industrial, creado por el artículo 15 de la Ley 8/2004, de 12 de noviembre, de Industria de la Comunidad Autónoma de Euskadi, es el órgano consultivo y participación de los sectores representativos de intereses sociales y actividades relacionadas con la seguridad industrial.

**Artículo 3.**— Adscripción orgánica.

El Consejo Vasco de la Seguridad Industrial está adscrito al departamento competente en materia de industria, aunque no se integrará en su estructura orgánica.

**Artículo 4.**— Funciones.

El Consejo Vasco de Seguridad Industrial tiene las siguientes funciones:

a) Informar preceptivamente los proyectos de reglamentaciones de seguridad industrial cuyo ámbito territorial sea la Comunidad Autónoma de Euskadi.

b) Informar sobre los planes de actuación en materia de seguridad industrial.

c) Coordinar las actuaciones de las entidades colaboradoras en materia de seguridad industrial.

d) Impulsar la realización de estudios e informes en materia de seguridad industrial.

e) Asesorar en la elaboración, consulta y seguimiento de la política de seguridad industrial.

CAPÍTULO II  
ORGANIZACIÓN

**Artículo 5.**— Organización.

1.— El Consejo de Seguridad Industrial funciona en Pleno.

2.— El Pleno está presidido por el viceconsejero competente en Seguridad Industrial, quien designará un secretario entre los funcionarios adscritos a su viceconsejería. El vicepresidente será el director competente en seguridad industrial.

**Artículo 6.**— Composición del Pleno.

1.— El Pleno está integrado por el Presidente, el Vicepresidente, el Secretario y 19 Vocales.

2.— Son Vocales del Pleno del Consejo de Seguridad Industrial los siguientes:

- a) Industria-arloko eskumena duen saileko industria-segurtasuneko zerbitzuko burua.
- b) Industria-arloko eskumena duen saileko industria-zerbitzuko burua.
- c) Energia-arloko eskumena duen saileko energia-zerbitzuko burua.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Ingenierien Kontseiluko ordezkari bat.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko Peritu eta Industria Ingeniari Teknikoen Kontseiluko ordezkari bat.
- f) Enpresaburuen elkartetako hiru ordezkari.
- g) Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko ordezkari bat.
- h) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organo eskudunak baimendutako kontrolerakundetako ordezkari bat.
- i) Kontsumitzaileen federazioetako hiru ordezkari.
- j) Euskal Autonomia Erkidegoko Eusko Ganberak-Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberetako ordezkari bat.
- k) Energia banatzen edo merkaturatzen duten enpresetako hiru ordezkari; sektore hauetako bakoitzetik bat: gasa, elektrizitatea eta petrolio-gaiak.
- l) Osalan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko ordezkari bat.
- m) Ingurumen eta Lurralte Antolamendu Saileko ordezkari bat.

3.- Euren kargua dela-eta izendatuta dauden Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluko kideek kargu hori uzten duten momentuan bertan utziko diote Kontseiluko kide izateari.

4.- Gainerako kideak Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluko lehendakariak izendatuko ditu, dagozion erakundearen proposamenez, lau urteko epealdirako; epe hori bukatu ostean beste lau urterako izendatu ahal izango dira. Azken epe hori igarota, kideok euren eginkizunak betetzen jarraituko dute, ordezkoak izendatzan diren arte.

5.- Heriotzak, ezintasunak, uko egiteak edo antzeko arrazoiek eragindako hutsuneak hilabeteko epean beteko dira, egoera horren berri Kontseiluko idazkariari jakinarazten zaionetik hasita; ordezkatutako kidearen agintaldia bukatu arte iraungo du karguan kide berriak.

6.- Kontseiluko idazkariak hitza hartu ahal izango du, baina ez du boto-eskubiderik izango Kontseiluaren erabakietan.

7.- Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluko lehendakariak baimena eman diezaike kasuan kasuko gaian aditu diren pertsonei bilkuretan edo bilkuren zati

- a) Jefe de servicio del servicio de seguridad industrial del departamento competente en materia de industria.
  - b) Jefe de servicio de industria del departamento competente en materia de industria.
  - c) Jefe de servicio de energía del departamento competente en energía.
  - d) Un representante del Consejo de Ingenieros Industriales del País Vasco.
  - e) Un representante del Consejo de Peritos e Ingenieros Técnicos Industriales del País Vasco.
  - f) Tres representantes de las asociaciones de empresarios.
  - g) Un representante de la Confederación de Cooperativas de Euskadi.
  - h) Un representante de los organismos de control autorizados por el órgano competente de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
  - i) Tres representantes de las federaciones de consumidores.
  - j) Un representante de Eusko Ganberak-Cámaras de Comercio, Industria y Navegación del País Vasco.
  - k) Tres representantes de las empresas distribuidoras o comercializadoras de energía, a razón de uno por cada uno de los siguientes sectores: gas, electricidad y productos petrolíferos.
  - l) Un representante de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.
  - m) Un representante del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.
- 3.- Aquellos miembros del Consejo Vasco de la Seguridad Industrial que lo fueran por razón de su cargo, cesarán automáticamente con la pérdida de la condición en virtud de la cual fueron nombrados.
- 4.- El resto de miembros, deben ser nombrados por el Presidente del Consejo Vasco de Seguridad Industrial a propuesta de la entidad respectiva, y su mandato tendrá una duración de cuatro años, finalizado el cual podrán ser designados de nuevo para otro mandato. Transcurrido este plazo, éstos continuarán desempeñando sus funciones hasta que surta efecto el nombramiento de sus sustitutos/as.
- 5.- Las vacantes que se produzcan por defunción, incapacidad, renuncia o causas similares serán cubiertas en el plazo de un mes desde que se comunique tal circunstancia a la secretaría del consejo y por el tiempo que resta de mandato del miembro sustituido.
- 6.- El Secretario del Consejo tiene voz pero no derecho a voto en los acuerdos que adopte el Consejo.
- 7.- La Presidencia del Pleno del Consejo Vasco de Seguridad Industrial podrá autorizar la presencia en sus sesiones o en parte de ellas, de personas especializadas

batean parte hartzeko; horrelakoek hitz egin ahal izango dute baina ezingo dute botorik eman, aditu diren gaien inguruan.

**7. artikulua.-** Batzorde bereziak.

1.– Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluan izaera teknikoko batzorde bereziak sortu daitezke. Bilkurak baimendu eta izendatuko ditu batzorde horiek, ematen zaien egitekoen arabera etengabeko edo aldi baterako lankidetza eta laguntza eskaini dezaten.

Batzorde berezi horiek bilkurari laguntza emango diote eta industria-segurtasunaren alderdi zehatzak lantzen dituzte; horretarako, gai zehatzei buruzko lanak, azterlanak, txostenak eta proposamenak egingo dituzte, bilkuretan horiei buruz eztabaidatu eta oniritzia emateko.

2.– Batzorde bereziak honako hauek osatuko dituzte, EAEko herri-administrazioetako kideek eta industria-sektorean horretarako egoki jotzen diren profesionalek.

### III. KAPITULUA FUNTZIONAMENDUA

**8. artikulua.-** Bilkurak.

Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluaren bilkura urtean behin egingo da, gutxienez. Horrez gain, bilkurak egingo dira lehendakariak beharrezko irizten badio edo kideen heren batek idatziz eskatzen badu.

**9. artikulua.-** Bilkuretarako deialdiak.

1.– Lehendakariaren aginduz egingo dira Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluaren bilkuretarako deia, gutxienez zazpi egun natural lehenago. Deialdian bilkuraren gai-zerrenda, eguna, tokia eta ordua zehaztuko dira.

2.– Lehendakariaren iritziz presakoak diren bilkuren deialdiak egiteko, ez da beteko aurretiazko epe hori.

3.– Horrelako bilkurak balio osoz garatzeko, kide gehienek bilkuraren lehenengo puntuau onartu beharko dute halakoak presaz egiteko beharra.

4.– Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluko bilkurako edozein kidek proposatu diezaiokе lehendakariari gai bat aztergaien zerrendan sartzeko, baldin eta gutxienez 72 ordu lehenago egiten badu eta proposamenia justifikatzeko memoria laburra aurkezten badu.

**10. artikulua.-** Eratzea.

1.– Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua balio osoz eratuta geratuko da, lehenengo deialdian kideen erdiak gehi bat bertaratzen badira.

en los temas que fueran objeto de tratamiento en las mismas, que, en todo caso, actuarán con voz y sin voto en el tema o temas que fundamenten su presencia.

**Artículo 7.-** Comisiones Especiales.

1.– En el seno del Consejo Vasco de Seguridad Industrial pueden constituirse Comisiones Especiales de carácter técnico que, en función de los cometidos que se les asignen, serán autorizadas y designadas por el Pleno para la colaboración y apoyo permanente o puntual.

Estas Comisiones Especiales tienen por objeto auxiliar al Pleno y abordar aspectos específicos de la seguridad industrial, mediante la realización de trabajos, estudios, informes y propuestas sobre materias concretas que sirvan de base para su debate y aprobación en el Pleno.

2.– Las Comisiones Especiales pueden integrarse por miembros de las Administraciones Pùblicas Vascas y por los profesionales del sector industrial que se consideren más idóneos a su constitución.

### CAPÍTULO III FUNCIONAMIENTO

**Artículo 8.-** Reuniones.

El Pleno del Consejo de Seguridad Industrial se reunirá, como mínimo, una vez al año. También podrá reunirse a iniciativa de la Presidencia siempre que lo considere oportuno y a petición por escrito de un tercio de sus miembros.

**Artículo 9.-** Convocatorias de las reuniones.

1.– Las convocatorias del Consejo Vasco de Seguridad Industrial, serán realizadas por orden de la Presidencia con una antelación mínima de siete días naturales. En la convocatoria habrá de fijar se el orden de asuntos, el día, lugar y hora de celebración de la sesión.

2.– Qedarán dispensadas de dicho requisito de antelación mínima aquellas sesiones que a juicio de la presidencia revistan urgencia.

3.– Para que se desarrollen válidamente, la urgencia de tales reuniones debe ser ratificada como primer punto de la sesión por la mayoría de los miembros del órgano.

4.– Cualquier miembro del Pleno del Consejo Vasco de Seguridad Industrial puede proponer a la Presidencia la inclusión de algún punto en el orden del día, siempre que lo haga con un mínimo de 72 horas de antelación y acompañe a su propuesta una sucinta memoria justificativa de la propuesta.

**Artículo 10.-** Constitución.

1.– El Pleno del Consejo Vasco de Seguridad Industrial queda válidamente constituido cuando concurren en primera convocatoria la mitad más uno de sus miembros.

2.– Behar besteko quorumik ez badago, bigarren deialdian eratu daiteke hogeita hamar minutu geroago, eta kasu horretan kideen heren bat bertaratzea nahikoa izango da.

3.– Nolanahi ere, bilkurak balio osoz egiteko, ezin-bestekoa da lehendakaria eta idazkaria edo horien ordezkao bertan egotea.

**11. artikulua.**– Erabakiak hartzea.

1.– Erabakiak baliozkoak izateko, bilkuran dauden gehiengoz hartuko dira, eta berdin ketarik gertatuz gero, lehendakariaren botoak ebatzik du.

2.– Bozketak bozka zuzen, pertsonal eta eskuordeezinaren printzipioetan oinarrituko dira, eta boto sekretua bermatu egingo da baldin eta Kontseiluko edozein kidek lehendakariari hala eskatzen badio.

3.– Bilkuran hartutako erabakiak aktan jasoko dira. Akta hori Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Procedura Erkidearen Legean finkatutako edukien eta prozeduraren arabera egingo da.

**12. artikulua.**– Barne araubidearen erregelamendua.

Dekreto honen esparruan, Industria Segurtasuneko Kontseiluaren bilkurak bere barne araubidearen erregelamendua ezarri dezake; erregelamendu horretan zehatuko ditu izendapenak egiteko prozedurak eta bilkuraren baldintza operativoak.

**13. artikulua.**– Gasteak.

Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluko kideek ez dute ordainsaririk jasoko, baina gastu eta dietetarako dirua emango zaie, betiere Zerbitzuak eragindako kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretoak edo hori ordezkatzen duen arauak ezarri-takoaren arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Kontseiluko kideak proposatzea.

Dekreto honen 6. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, dekretua indarrean sartu eta hilabeteko epean Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluaren organoetako partaide diren erakundeei eskatuko die Industria Segurtasunerako Euskal Kontseiluan izango dituzten ordezkariak izendatzeko.

AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**– Araubide osagarria.

Dekreto honetan zehaztu ez den prozedurari buruzko guztian Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Procedura Erkidearen Legean edo hori ordezkatzen duen arauan xedatutakoa aplikatuko da.

2.– Si no existiese quórum suficiente, se puede constituir en segunda convocatoria treinta minutos después de la primera, siendo en este caso suficiente con la presencia de la tercera parte de sus miembros.

3.– La celebración válida de las sesiones requiere, en todo caso, la presencia de la Presidencia y del Secretario, o de las personas que les sustituyan.

**Artículo 11.**– Adopción de acuerdos.

1.– Para la validez de los acuerdos, se requiere el voto favorable de la mayoría de los asistentes, dirimiéndose los empates con el voto de calidad del Presidente.

2.– El sistema de votación responde a los principios de voto directo, personal e indelegable, debiendo garantizarse el voto secreto cuando cualquiera de los miembros lo solicite a la Presidencia.

3.– Los acuerdos del Pleno deben constar en acta, que se formulará con los contenidos y procedimiento fijado en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Artículo 12.**– Reglamento de régimen interior.

El Pleno del Consejo de Seguridad Industrial puede establecer, en el marco de la presente norma, su reglamento de régimen interior en el que se determinarán los procedimientos de designación como los requisitos operativos del Pleno.

**Artículo 13.**– Gastos.

La pertenencia al Consejo Vasco de Seguridad Industrial no da lugar a retribución alguna, pero los miembros de dicho Consejo tendrán derecho al abono de los gastos y dietas en los términos fijados por el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio, o por la norma que lo sustituya.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL.**– Propuesta de miembros del Consejo.

A los efectos previstos en el artículo 6 de este Decreto, en el plazo de un mes contado a partir de la entrada en vigor del mismo, el titular del Departamento de Industria, Comercio y Turismo se dirigirá a aquellas entidades que cuente con participación en los órganos del Consejo Vasco de Seguridad Industrial, recabando la designación de la persona que en su representación vaya a formar parte del Consejo Vasco de Seguridad Industrial.

**DISPOSICIONES FINALES**

**Primera.**– Supletoriedad.

En todas las materias de orden procedural no contempladas en el presente Decreto se estará lo dispuesto en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común o disposición que la sustituya.

***Bigarrena.***— Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko abenduaren 9an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,  
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

***Segunda.***— Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 9 de diciembre de 2008.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,  
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.